## Presentación y justificación

El Foro Social Permanente, es un espacio plural de organizaciones y personas que han tomado el testigo de anteriores iniciativas y redes ciudadanas que trabajaron a favor del fin de la violencia, el diálogo y la convivencia.

Tras el fin de la violencia de ETA se ha abierto un espacio de oportunidad histórico para la construcción de una sociedad en paz, pero existen todavía algunos aspectos en los que no se han producido avances o queda mucha tarea por hacer: la asunción del daño causado, el reconocimiento justo de todas las víctimas, el trabajo en favor de una cultura de paz y convivencia, el fin de las medidas de excepción aplicadas a los presos y presas, la reintegración social de las personas encarceladas...

En este contexto, radicalmente diferente al de hace una década, hay una mayoría social que está a favor de dar los pasos necesarios para avanzar en dichas cuestiones aún pendientes. Así, todos los sindicatos, la mayoría de los partidos políticos y diversas organizaciones sociales se han comprometido con impulsar este proceso de avance.

En ese sentido, desde el Foro Social Permanente invitamos a que una parte muy importante del tejido asociativo vasco, representado en REAS Euskadi, se sume a esta ola de compromiso por la paz y la convivencia democrática. Y que lo haga desde sus propios valores que tienen que ver con su contribución a la cohesión social, la inclusión y la promoción de la participación ciudadana.

Es un momento en el que la desaparición de ETA y la existencia de un consenso cada vez más amplio y plural sobre estas cuestiones puede facilitar que entidades como REAS Euskadi puedan realizar este tipo de posicionamientos.

## Declaración aprobada por la REAS Euskadi

Después de décadas de violencia, el País Vasco afronta un horizonte de convivencia, paz y reconciliación. Un horizonte que no debe olvidar lo ocurrido en el pasado, que debe poner en el centro el reconocimiento del daño causado a las víctimas de ETA junto al resto de víctimas de otras expresiones de violencia, construyendo así una memoria colectiva e inclusiva de lo ocurrido.

Las organizaciones, colectivos y cooperativas representadas en la Red de Economía Alternativa y Solidaria de Euskadi, queremos acompañar a la ciudadanía vasca que, a través de sus instituciones y la mayoría de sus partidos políticos y sociedad civil, apuesta por un futuro de libertad, reconocimiento mutuo y convivencia en el que todas las víctimas puedan sentir reparado su dolor.

En la medida que surgimos para avanzar hacia una sociedad más justa y solidaria, más cohesionada y más participativa y que el nuevo escenario alcanzado ha posibilitado nuevos consensos, hacemos nuestra la siguiente declaración.

DECLARACIÓN

- PRIMERO. Defender los derechos humanos como eje central y única referencia para la convivencia democrática en el País Vasco, así como la construcción de una cultura de paz que siente las bases para la no repetición.
- SEGUNDO. Garantizar los principios de verdad, justicia y reparación para todas las víctimas de todas las expresiones de violencia.
- TERCERA. Instar a las instituciones la aplicación de la legislación ordinaria en materia de política penitenciaria y el fin del alejamiento.
- CUARTO. Contribuir desde REAS Euskadi, al desarrollo de una cultura de la paz, la convivencia y la reconciliación, desde los valores propios del sector basados en el fomento de la participación social y el impulso de la inclusión y la cohesión social en nuestra sociedad.

reas euskadi
ekonomia alternatibo eta solidarioren sarea
red de economía alternativa y solidaria
Plaza Venezuela 1, 2º Izq. Izq. 48001 Bilbao
reaseuskadi@reaseuskadi.net

## Aurkezpena eta justifikazioa

Foro Sozial Iraunkorra erakundeen eta pertsonen elkargune plurala da, haien aurretik indarkeriaren amaiera, elkarrizketa eta bizikidetza sustatu zuten ekimenen eta hiritar-sareen lekukoa hartu dutenena, hain zuzen.

ETAren indarkeria amaitu ondoren, bakean bizi den gizartea eraikitzeko aukera historikoa zabaldu da; baina, ez da aurrerapenik egin edo lan asko dago egiteko zenbait alderditan, besteak beste, eragindako mina onartzen, biktima guztien bidezko aitortzan, bake- eta bizikidetza-kulturaren aldeko lanean, presoei ezarritako salbuespen-neurriak ezabatzen, kartzelatutako pertsonak gizarteratzen...

Duela hamarkada bateko egoerarekin alderatuta, oso bestelakoa da gaur egungoa. Orain, alderdi horietan aurrera egiteko pausoak ematearen alde dago gehiengo soziala. Hala, aurrera egiteko prozesua bultzatzeko konpromisoa hartu dute sindikatu guztiek, alderdi politiko gehienek eta hainbat gizarte-erakundek.

Ildo horretan, Foro Sozial Iraunkorretik gonbita egiten dugu, euskal ehun asoziatiboaren zati handi batek, Euskadiko Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sarean (REAS Euskadi) ordezkaritza duenak, bat egin dezan bakearen eta bizikidetza demokratikoaren aldeko olatu honekin. Eta bat egin dezan berezko dituen balioak oinarri hartuta, hau da, gizarte-kohesioari, inklusioari eta herritarren partaidetza sustatzeari ekarpena egiteko xedearekin.

ETA desagertuta, aipatutako gaien inguruko kontsentsua gero eta zabalagoa den honetan, une egokia izan daiteke REAS Euskadin dauden kolektibo eta kooperatibak eta antzeko erakundeek horrelako posizionamenduen alde egiteko.

## REAS Euskadik onartutako adierazpena

Indarkeriazko hamarkaden ondoren, Euskal Herriak bizikidetzarako, bakerako eta adiskidetzerako bidea du aurretik. Bide horretan ezin dugu ahaztu iraganean gertatutakoa; funtsezkoa da ETAren biktimei eta bestelako indarkeria-adierazpenen biktimei eragindako mina onartzea, gertatutakoari buruzko memoria kolektibo eta inklusiboa eraikitzeko.

REAS Euskadiko erakundeok euskal herritarren bidelagun izan nahi dugu. Erakundeen, alderdi politiko gehienen eta gizarte zibilaren bitartez, etorkizunera begira askatasunaren, elkarrekiko onarpenaren eta bizikidetzaren aldeko apustua egiten duten herritarrak lagundu nahi ditugu, etorkizun horretan biktima guztiek euren minaren erreparazioa senti dezaten.

Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko bidean aurrera egiteko sortu zen ginen. Hori horrela, eta agertoki berriak euskal gizartean adostasun berriak ekarri dituela kontuan hartuta, geure egiten dugu honako adierazpen hau.

ADIERAZPENA

- LEHENENGOA. Giza eskubideak babestea, Euskal Herriko bizikidetza demokratikorako ardatza eta erreferentzia bakarra izan daitezen, eta bakearen kultura eraikitzea, gertatutakoa ez errepikatzeko oinarri sendoa izan dadin.
- BIGARRENA. Egiaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioak bermatzea indarkeria-adierazpen ororen biktima guztiei.
- HIRUGARRENA. Erakundeei eskatzea espetxe-politikako legeria arrunta aplika dadila eta urruntzea amaitu.
- LAUGARRENA. REAS Euskaditik bakearen, bizikidetzaren eta adiskidetzearen kultura sustatzea, sektorearen berezko balioak aintzat hartuta, hots, gure gizartean gizarte-partaidetza, inklusioa eta kohesio soziala sustatuz.

reas euskadi
ekonomia alternatibo eta solidarioren sarea
red de economía alternativa y solidaria
Plaza Venezuela 1, 2° Izq. Izq. 48001 Bilbao
reaseuskadi@reaseuskadi.net

## Aurkezpena eta justifikazioa

Foro Sozial Iraunkorra erakundeen eta pertsonen elkargune plurala da, haien aurretik indarkeriaren amaiera, elkarrizketa eta bizikidetza sustatu zuten ekimenen eta hiritar-sareen lekukoa hartu dutenena, hain zuzen.

ETAren indarkeria amaitu ondoren, bakean bizi den gizartea eraikitzeko aukera historikoa zabaldu da; baina, ez da aurrerapenik egin edo lan asko dago egiteko zenbait alderditan, besteak beste, eragindako mina onartzen, biktima guztien bidezko aitortzan, bake- eta bizikidetza-kulturaren aldeko lanean, presoei ezarritako salbuespen-neurriak ezabatzen, kartzelatutako pertsonak gizarteratzen...

Duela hamarkada bateko egoerarekin alderatuta, oso bestelakoa da gaur egungoa. Orain, alderdi horietan aurrera egiteko pausoak ematearen alde dago gehiengo soziala. Hala, aurrera egiteko prozesua bultzatzeko konpromisoa hartu dute sindikatu guztiek, alderdi politiko gehienek eta hainbat gizarte-erakundek.

Ildo horretan, Foro Sozial Iraunkorretik gonbita egiten dugu, euskal ehun asoziatiboaren zati handi batek, Euskadiko GGKE-en Koordinakundean ordezkaritza duenak, bat egin dezan bakearen eta bizikidetza demokratikoaren aldeko olatu honekin. Eta bat egin dezan berezko dituen balioak oinarri hartuta, hau da, gizarte-kohesioari, inklusioari eta herritarren partaidetza sustatzeari ekarpena egiteko xedearekin.

ETA desagertuta, aipatutako gaien inguruko kontsentsua gero eta zabalagoa den honetan, une egokia izan daiteke Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak eta antzeko erakundeek horrelako posizionamenduen alde egiteko.

## Euskadiko GGKE-en Koordinakundearentzako onartutako adierazpena

Indarkeriazko hamarkaden ondoren, Euskal Herriak bizikidetzarako, bakerako eta adiskidetzerako bidea du aurretik. Bide horretan ezin dugu ahaztu iraganean gertatutakoa; funtsezkoa da ETAren biktimei eta bestelako indarkeria-adierazpenen biktimei eragindako mina onartzea, gertatutakoari buruzko memoria kolektibo eta inklusiboa eraikitzeko.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko erakundeok euskal herritarren bidelagun izan nahi dugu. Erakundeen, alderdi politiko gehienen eta gizarte zibilaren bitartez, etorkizunera begira askatasunaren, elkarrekiko onarpenaren eta bizikidetzaren aldeko apustua egiten duten herritarrak lagundu nahi ditugu, etorkizun horretan biktima guztiek euren minaren erreparazioa senti dezaten.

Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko bidean aurrera egiteko sortu zen Koordinakundea. Hori horrela, eta agertoki berriak euskal gizartean adostasun berriak ekarri dituela kontuan hartuta, geure egiten dugu honako adierazpen hau.

ADIERAZPENA

- LEHENENGOA. Giza eskubideak babestea, Euskal Herriko bizikidetza demokratikorako ardatza eta erreferentzia bakarra izan daitezen, eta bakearen kultura eraikitzea, gertatutakoa ez errepikatzeko oinarri sendoa izan dadin.
- BIGARRENA. Egiaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioak bermatzea indarkeria-adierazpen ororen biktima guztiei.
- HIRUGARRENA. Erakundeei eskatzea espetxe-politikako legeria arrunta aplika dadila eta urruntzea amaitu.
- LAUGARRENA. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak ordezkatzen duen Garapenerako Lankidetzaren sektoretik bake-kultura, bizikidetza eta adiskidetzea sustatzea, gizarte-partaidetzan oinarritutako berezko balioen arabera eta beste bake-prozesu batzuetan lagunduz ikasitakoa aintzat hartuta, Kolonbiakoan, kasu.

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI
C/ Ronda, s/n (frente a nº 5) 3º planta
48005 Bilbao Tel: 944150300

## Presentación y justificación

El Foro Social Permanente, es un espacio plural de organizaciones y personas que han tomado el testigo de anteriores iniciativas y redes ciudadanas que trabajaron a favor del fin de la violencia, el diálogo y la convivencia.

Tras el fin de la violencia de ETA se ha abierto un espacio de oportunidad histórico para la construcción de una sociedad en paz, pero existen todavía algunos aspectos en los que no se han producido avances o queda mucha tarea por hacer: la asunción del daño causado, el reconocimiento justo de todas las víctimas, el trabajo en favor de una cultura de paz y convivencia, el fin de las medidas de excepción aplicadas a los presos y presas, la reintegración social de las personas encarceladas...

En este contexto, radicalmente diferente al de hace una década, hay una mayoría social que está a favor de dar los pasos necesarios para avanzar en dichas cuestiones aún pendientes. Así, todos los sindicatos, la mayoría de los partidos políticos y diversas organizaciones sociales se han comprometido con impulsar este proceso de avance.

En ese sentido, desde el Foro Social Permanente invitamos a que una parte muy importante del tejido asociativo vasco, representado en la Coordinadora de ONGD de Euskadi, se sume a esta ola de compromiso por la paz y la convivencia democrática. Y que lo haga desde sus propios valores que tienen que ver con su contribución a la cohesión social, la inclusión y la promoción de la participación ciudadana.

Es un momento en el que la desaparición de ETA y la existencia de un consenso cada vez más amplio y plural sobre estas cuestiones puede facilitar que entidades como la Coordinadora de ONGD de Euskadi puedan realizar este tipo de posicionamientos.

## Declaración aprobada por la Coordinadora de ONGD de Euskadi

Después de décadas de violencia, el País Vasco afronta un horizonte de convivencia, paz y reconciliación. Un horizonte que no debe olvidar lo ocurrido en el pasado, que debe poner en el centro el reconocimiento del daño causado a las víctimas de ETA junto al resto de víctimas de otras expresiones de violencia, construyendo así una memoria colectiva e inclusiva de lo ocurrido.

Las organizaciones de la Coordinadora de ONGD de Euskadi queremos acompañar a la ciudadanía vasca que, a través de sus instituciones y la mayoría de sus partidos políticos y sociedad civil, apuesta por un futuro de libertad, reconocimiento mutuo y convivencia en el que todas las víctimas pueden sentir reparado su dolor.

En la medida que la Coordinadora surge para avanzar hacia una sociedad más justa y solidaria, más cohesionada y más participativa y que el nuevo escenario alcanzado ha posibilitado nuevos consensos en la sociedad vasca, hacemos nuestra la siguiente declaración.

DECLARACIÓN

- PRIMERO. Defender los derechos humanos como eje central y única referencia para la convivencia democrática en el País Vasco, así como la construcción de una cultura de paz que siente las bases para la no repetición.
- SEGUNDO. Garantizar los principios de verdad, justicia y reparación para todas las víctimas de todas las expresiones de violencia.
- TERCERA. Instar a las instituciones la aplicación de la legislación ordinaria en materia de política penitenciaria y el fin del alejamiento.
- CUARTO. Contribuir desde el sector de la Cooperación al Desarrollo representada en la Coordinadora de ONGD de Euskadi, al fomento de una cultura de la paz, la convivencia y la reconciliación, desde los valores propios del sector basados en la participación social y los aprendizajes acumulados en el acompañamiento a otros procesos de paz como el colombiano.

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI
C/ Ronda, s/n (frente a nº 5) 3º planta
48005 Bilbao Tel: 944150300